

# Txosnarik izango ote da aurtengo San Pedroetan?

**Tirabira asko izan dira azken egunotan, txosnen kokalekuaren inguruan. Kulturako eta Txosnetako batzordeak ados jarri arren, Ana Urtxuegia alkateak debekatu egin du txosnak Pintore kalean jartzea.**

Txosnarik ba ote aurtengo San Pedroetan? Eta, non jarriko dituzte, Pintore Kalean edo Oria ibaiaren ondoan? Bi galdera horiek behin eta berriro entzun ditugu azken egunotan. Gehigarri hau idazteko garaian, Txosnetako batzordeak ez zekien zer erabaki. Alkatearekin beste elkarrizketa bat izateko nahia agertu zuten batzordekideek.

Ekainaren 22an, Jai Alternatiboan aldeko Txosnetako batzordeak prentsurrekoa eman zuen Okendo plazan. Agerraldian, alkateak hartu duen erabakia salatu zuten. "Azken urteotan Udalararen aldetik jasotako oztopoak ugariak izan dira. Azken eraso, aldiz, mugaz kanpokoak izan da. Lotsagarria da udalak, eta batez ere alkateak, hartu duen jokabidea".

Uistin kaleko aldatetek txosnen betiko kokalekua aldatzea ekarri dute. Iaz arazo berak izan ziren, baina azken unean Uistin 1 eta 3 artean jarri zituzten. Aurten, Udalak txosnak han jartzea debekatu du. Irtenbide bat bilatzeko bildu ziren Kulturako eta Txosnetako batzordeetako ordezkariak. "Aukera batzuk aztertu ondoren, Pintore kalea zela leku onena erabaki genuen", azaldu zuten prentsurrekoan.

Ekainaren 19an, txosnetako ordezkariak alkatearen deia jaso zuten. Ekainaren 20an bildu ziren eta ostiraleko prentsurrekoan jakitera eman zutenenez, "berak hartutako erabakia izan zela adierazi zigun. Txosna guztiak erditik urrundu behar zirela, oholtzarik eta erabiltzeko moduko lekurik utzi gabe".

Alkateak Kulturako Batzordearen eta beraren arteko koordinazio falta egon dela aitortu du, baina argi utzi nahi izan du batzordea "iritzi-emailea" dela eta "azken



erabakia" berea dela. "Kokalekua erabakita zegoen, eta ondo aztertu ondoren, aukeratu dugu ibaiaren ondoko leku hori. Kontua da Pintore kalean jarriko zirela jakin bezain pronto bildu nahi izan nuela taldeekin. Hiru egun falta zirenean egin nezakeen, baina arazoa lehenbailehen konpontzen ahalegindu naiz". Jai alternatiboan batzordeari astebeteko epea eskasa iruditzen zaio.

Erdigunetik kanpo egotea eta oholtzarik ez ematea salatu dute txosnetakoek. Alkateak horretarako ere badu erantzuna. "Erdigunetik kanpo? Niretzat erdigunea da. Baziren urrutiago zeuden beste aukera batzuk, baina baztertu egin nituen. Eta oholtzarena txosnetakoei galdetu. Azken urteotan ordutegia ez dute errespetatu eta horrek zera esan nahi du: hiru urteko zigorra txosna jarri gabe. Horrelakorik egin al dugu? Ez. Ordutegiak errespetatuko dituztela hitz ematen badigute, oholtza izango dute".

Xabier Elizondo EHko ordezkariaren iritziz "Pintore kaleko kokapena ez zen txarra. Normala da ondoko bizilagunek protesta egitea, baina txosnek erdialdean egon behar dute. Handik kentzea astakeria iruditzen zait. Kontua da urtero ezin dela kokapena aldatu, eta beharrezkoa da txosnei behin-betiko lekua ematea. Horretarako, alde zurretik hitz egin behar da gauza hauetaz, azken unera arte ezin dira gai hauek utzi".

Nekane Lartabalek, EA-EAJ koalizioako zerrendabu-



ruak dio "Jendeak lo egiteko eskubidea duela, baina festa lau egun dira, eta aurtten astebukaera izanik, jendea gutxiago molestatzen da. Txosnen kokalekua erdialdea da. Nik neuk Okendon jarriko nituzke, bi programak uztartuz. Hori bai, txosnetakoekin hitz egin beharra dago zenbait neurri zehazteko. Oria ibaira bidaltzea bidegabekeria da. Honelako gauzak patxaraz eztabaidatu behar dira eta behin-betikoz ados jarri".

Txosnetako Batzordeak, hala ere, Jai Alternatiboan egitaraua auzkeztu zuen. "Diru-arazoak izan arren -Udalak argia, ura eta beharrezkoak diren beste hainbat gauza ukatzen dizkiela salatu zuten- egitaraua zabaldu prestatu dugu: kontzertuak, haurrentzako jolasak, afari herrikoia, gazteen arteko olinpiadak, eta beste abar gauza asko". Lehen aipatu dugun bezala, gehigarria egitean ez genekien txosnen egitarauarekin zer gertatuko zen. Dena dela, eskuineko zutabearen Jai Alternatiboan aldeko Txosnetako Batzordeak prestatu duen egitaraua jaso dugu.

Aitor Azkonobieta

## Txosnak • Egitaraua

### OSTEGUNA 28

- 20:00** Jaien hasiera (pregoia, bertsoak, txalaparta...)
- 20:30** Triki-poteoa
- 23:00** Kontzertua: 8 motxos P.O.K.

### OSTIRALA 29

- 18:00** Graffitiaren erakusketa SYRekin
- 20:00** Enkartzelada
- 21:30** Afari herrikoia + ezustekoa
- 22:30** Kontzertuak: Zam, Bletz eta, Straing to Maintain

### LARUNBATA 30

- 18:00** Haurrentzako jokoak
- 19:30** Omenaldia (parodia)
- 23:00** Kontzertuak: Sr. No Talbot 40 de fiebre

### IGANDEA 1

- 23:00** Djak: Fresstyle Sound System: Syr, Neron eta Mr. Snoid